

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2093

EBAZPENA, 2026ko maiatzaren 7koa, Langileriaren kudeaketa zuzendariarena, zeinaren bidez onesten baita prestasunagatiko eta mugikortasunagatiko konpentsazioa ordaintzea 2025-2026 ikasturtean zerbitzuak eman dituzten ordezeko langileei.

Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak, esleituta dituen eskumenen barruan, urtero egiten du Hezkuntza Sailarentzat ikasturtean zehar zerbitzuak eman dituzten ordezeko irakasleentzako oporraldiaren likidazioa.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioaren 19. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz –abenduaren 30eko 252/2025 Dekretuak arautzen du akordio hori–, ikasturte bakoitzean gutxienez 165 egun naturalez zerbitzuak eman dituzten, lanik gabe egon diren aldietan lanerako prest egon diren eta justifikatutako arrazoirik gabe esleipen bati uko egin ez dioten ordezeko funtzionarioek uztaileko eta abuztuko ordainsariak osorik jasoko dituzte, baita aldi horiei dagozkien Gizarte Segurantzako kotizazioak, hautagaien zerrendako puntuazioa eta antzinasuna ere.

Ebazpen honen helburua da ordezeko funtzionarioei jakinaraztea zer eskubide sortu diren 2025-2026 ikasturtean sinatu dituzten izendapenen ondorioz. Era berean, jakinarazi nahi da, onarpen horiek, langile batzuen kasuan, betebeharrak batzuk bete behar izatea ekar dezaketela.

Aurrez esandakoa aintzat hartuz eta eman zaizkidan eskumenen arabera, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2025-2026 ikasturtean 165 egunez edo gehiago zerbitzuak eman dituzten, lanik gabe egon diren aldietan lanerako prest egon diren eta justifikatutako arrazoirik gabe esleipen bati uko egin ez dioten ordezeko funtzionarioei uztaileko eta abuztuko ordainsariak osorik jasotzeko eskubidea aitortzea, baita aldi horiei dagozkien Gizarte Segurantzako kotizazioak, hautagaien zerrendako puntuazioa eta antzinasuna ere, kidego, maila eta dedikazio bakoitzeko zerbitzu-denboraren arabera.

Bigarrena.– 2025-2026 ikasturtean 165 egunez edo gehiago zerbitzuak eman arren gainerako baldintzak betetzen ez dituzten langileei eta 2025-2026 ikasturtean 165 egunez edo gutxiago zerbitzuak eman dituzten langileei –unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioaren 19. artikuluan ezarritakoa aplikatu ezin zaienei– udako izendapenerako eskubidea aitortzea, 2025-2026 ikasturtean sortu eta hartu ez dituzten opor-egunengatik, kidego, maila eta dedikazio bakoitzeko zerbitzu-denboraren arabera. Izendapenen indarraldia ikasturtean zehar emandako zerbitzuen arabera izango da. Izendapenak eskubidea emango du Gizarte Segurantzaren kotizatze eta hautagaien zerrendan dagoen puntuazioa eta antzinasuna izateko.

Hirugarrena.– Interesdunei jakinaraztea aurreko ebazpenetan adierazitako ordainketek beti sortzen dutela beste izendapen baterako eta beste izendapen-uzte baterako eskubidea, eta, ondorioz, izendapen horrek berekin dakarrela Gizarte Segurantzaren alta ematea. Horregatik, langabezia-prestazioak jasotzen ari direnek dagozkion erakundera joan beharko dute, Gizarte Segurantzaren alta-egoeran dauden bitartean prestazioaren kobrantza eteteko.

Laugarrena.– Interesdunei jakinaraztea, halaber, ekainaren 30a baino lehen izendapena amaitu izanagatik baja hartzen dutenek edo hartua dutenek, eta uztaileko izendapenaren hasiera-egunean izendapena eta Gizarte Segurantzaren alta ematea eragozten duen aldi baterako ezintasun egoeran badaude edo jaiotzagatiko eta adingabeen zaintzagatiko prestazioa jasotzen ari badira, egoera hori justifikatzeko agiriak aurkeztu behar dituztela, uztailaren 1a baino lehen, dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzan, Hezkuntza Saileko Tramitagune erregistro elektronikoen bidez.

Era berean, uztaileko hilabeteari dagokion izendapenaren hasiera-egunean lan-kontratu bat dutenei ezin izango zaie izendapenik egin, baldin eta bi jardueren bateragarritasuna onartuta ez badute.

Kasu horietan, izendapena egin eta Gizarte Segurantzaren alta ematea ezinezkoa denez, izendapena atzeratu ahal izango dute lehenengo eta bigarren ebazpenetan ezarritakoaren arabera dagokien aldirako, salbu eta uztailaren 1a baino lehen izendapena hasia eskatu badute, hura eragozten zuten lehen aipatutako egoerak bukatu direlako. Halaber, izendapenaren indarraldia ezin izango da abuztuaren 31tik aurrera luzatu.

Azken aukera horri heldu ahal izateko, interesdunak konpromisoa hartu beharko du izendapena eragotzi zuen egoera bukatu dela jakinarazteko, justifikatuta, dagokion lurralde-ordezkaritzan, Hezkuntza Saileko Tramitagune erregistro elektronikoen bidez. Jakinarazpen horretatik aurrera, legokiokeen gainerako izendapena egingo zaio, zeinaren indarraldia abuztuaren 31ra artekoa izango baita gehienez.

Bosgarrena.– Beren egoerak Gizarte Segurantzaren alta ematea eta, ondorioz, izendapena jasotzea eragotzi dienek ez dute inolako konpentsaziorik jasotzeko eskubiderik izango. Edonola ere, Hezkuntza Sailaren Tramitagune erregistro elektronikoen bidez hartu gabeko opor-egunak ordaintzeko eskaera egin ahal izango dute.

Seigarrena.– Ebazpen hau aplikatzean egindako izendapenek barne hartzen dituzte 2025-2026 ikasturteko izendapen bakoitzean sortutako eta hartu gabeko oporraldiak. Ebazpen honen xede diren izendapenek ez dute sortzen oporraldi gehigarri bat kobratzeko edo baliatzeko eskubiderik.

Zazpigarrena.– Argitara bedi ebazpen hau EHAAren eta sailaren webgunean.

Errekurtsoak:

Ebazpen honen aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsua aurkez dezake Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 7a.

Langileriaren kudeaketa zuzendaria,
UNAI NIETO MARIJUAN.